

bidegileak



Jose Agerre (1889-1962)

Egilea:

JOSE MARI SATRUSTEGI

Urte zailetakoko euskaltzale prestua

Langela estuan hormako aresak goraino liburuz beteta –liburutegi aipatua berea–, begirada noraezean erdi galdu-ta ezagutu genuen Jose Agerre euskaltzale nafarra. Iruñean Olite karririk bazuen denbora berrien ikuspegi aurrerakoi bat gerra osteko giroan, baina nolabaiteko errespetu serioa zerion leiho bakarreko argitasun urrian murgilduta gorputz handiko euskaltzale islatuari. Zura landuko mahai sendoa arkatz zorrotz, paper ilun eta hizkuntza askotariko ikasliburuz gainezka beti maisuaren aurrean. Ikasleak gora eta behera noiznahi «Poliglos» bere akademiako ikastaroetan. Hiriburuko azken erromantikoen jantzi ilunez bezi zen Agerre, Campion, Alexander Tapia,



Jose Agerre Santesteban (1889-1962)

Manezaundi eta Larreko bezala, jaun errespetagarriei zegokien gorbata eta guzti. Tradizio zurrun eta iritzi hertsiko Iruñea zen hura.

Aezkoako lurralde noblean sustraitzen da bere jatorria eta mendialdeko gizamoldez, entzute guzti, hitz urri eta esapide zuhurreko gizona zen Jose. Ariako Eulogio Agerre, bere aitak, zurgintzatik atera zuen bizia hirian. Ama berriz, Benita Santesteban, Iruñeko alaba zen. Alde Zaharreko Dormitaleria karrikan bizi ziren Agerretarrak eta bertan etorri zen

mundura Jose 1889ko abenduaren 29an. Anastasi izeneko bigarren seme bat ere izan zuten.

Etxetik gertu zegoen elizbarrutiko Seminario zaharrean sartu zen gazterik eta apaizgaien heziketa jaso zuen mutilak. Arrakastatsua zen Nafarroako tradizioan apaizen ikastetxe hura. Baserri mundu eta langileria arloko gazteentzat ia irteera bakarra izan ohi zen liburuen bidea urratzen hasteko. Berandu arte jarraitu ondoren estudioak, meza eman aurreko urtean edo utzi zuen Agerrek Seminarioa. Heziketa ona izan zuen, beraz, gazteen bigarren mailako jakintzaz bestalde filosofia eta teologia ere ikasi baitzuen, latin eta grekoa barne. Horrekin eta berezko ikasminarekin lortu zuen herriaren aurrean gizon jakintsuaren ohore itzela, *Don José* baitzen jendearentzat.



Dormitalleria karrika. Eskubian Agerre jaio zen etxe aurrea

Heziketak bizi markatu zuen bere bizia. Kristau printzipioen ardatza, arrazoimenduen joskera eta gizamailan jotortasuna izan ziren horren adierazgarri nagusiak.

Erlijioarekin batera euskal kulturari zion atxikimendua nabarmentzen da bere kezka nagusietan. Gerra aurretik nahiz gerra ondoren euskararen alde Nafarroan antolatutako ekimen guztietan barne zen Agerre edo Gurbindo, bere izengoitia, eta euskara erabiliz noski, hitzez nahiz izkribuetan. Arbasoen hizkuntza zaharra ikasi ez ezik, erakutsi ere zuen etxean helduentzat sortutako hizkuntzen akademian. Arnasaren pareko euskarria zen beretzat euskaltzaletasuna.

Inork ez daki eta berak ez zuen argitu non eta nola ikasi zuen euskara. Herrietatik hirira joandako guraso euskaldunek hemeretzigarren mendean nekez erakusten zieten beren hizkuntza seme-alabei. Erdaraz ez zekien baserritar askorentzat korapilatsua gertatu ohi zen hasieran hiriko bizia, eta mingarria burla; elebidunak izan arren, baliabide urria ikusten zioten herriko hizkerari egoera



Euskalerrriaren Adiskideak. Nafarroako taldearen ikurra

berrian. Prestigiorik eza zen, azken finean, eskola gutxiko jendearen artean euskararen etsairik beldurgarriena. Agerre familian, bestalde, ama erdalduna zen haurren heziketan horrek duen garrantziarekin.

Apaiztegia ez zen, noski, euskararik erakusten Agerrearen garaian. Beranduago hasi ziren Diputazioaren laguntzarekin euskarazko klaseak. Horrek ez du esan nahi norbera ikasten saiatu ez zitekeenik. Arturo Campionen inguruan eman ziren 1903. urtean helduentzat euskara ikastaroak. Geroago, 1910-1912, Juan Manuel Lerchundi arduratu zen hiriburuan nafarren hizkuntza erakustez. Horietaz edo antzeko ikastaroren batez baliatu ote zen Agerre gaztea euskara munduan lehen urratsak ematen hasteko? Auskalo.

Bada antzeko eredurik orduko Iruñean. Alexander Tapia Perurena (1899-1957) Agerretarren etxetik hurbil jaio zen katedral aurreko gunerean. Euskaltzale sutsuak



1909. San Ferminetan lehen lepoko gorriak harakinen jantzi luzeekin

ziren biak, erromantiko, jeltzale, kazetari, poetak eta etxean hizkuntzak erakusteko lanbidean ere parekatuak. Biziko antzekotasunaren ildo beretik, enpresako kontularitza izan zen bien lehenbiziko ogibidea. Jakina da Tapiak bere kasa ikasi zuela euskara eta ahalegindu zen –bere hitzetan– gaztelania bera baino hobeki menderatzen. Campionek ere horrela egin zuen lehenago. Nork ezeztar dezake –beste daturik gabe– Agerrek ere liburuen bidez ikasi zuenik? Izan ere, Dormitaleria karrikako olerkariaren euskarazko lanek, Santi Onaindia karmeldarraren ustez, «badute bere-berea duen nortasun berezia». Inongo ereduaren jarraipena baino, bere buruz landutako hiztegi eta joskeraren antza gehiago sumatzen zaio, herri hizkeran txertatzen ahalegindu arren.




Ikastaro guztiak egin zituen san Joanen seminarioa udaletxearen atzean

Euskaltzaina

Artez edo moldez, nafarren hizkuntza ongi baino hobeki menderatzea lortu zuen hiriko euskaldunberriak eta klaseak ematen ere hasia zen 1913an Iruñeko Euskal Etxeak antolatutako ikastaroan. Langile zintzoa eta ongi ikusia hiriburuan, preziatua zen bere lana euskaldun ospetsuen munduan. Jakinaenez, Eusko Ikaskuntzaren lehen kongresuan sortu zen Oñatin Euskaltzaindia, 1918ko irailaren lehen astean. Bertan izendatu ziren estreinako lau euskaltzain, hots, Azkue buru izango zena, Campion, Eleizalde eta Urkixo jaunak. Hamabi kideko elkartea osatu behar zuten hauek sortzaileen aginduz eta horretarako bildu ziren 1919ko irailaren 21ean Donostian, Gipuz-

koako Diputazioaren jauregian, euskal aldizkari guztien zuzendariekin. Eusko Ikaskuntzako ordezkaria zegoen mahai buruan idazkari lanetan. Han aukeratutako hamabien artean zegoen Jose Agerre Santesteban, hasierako Campionekin bigarren euskaltzain nafarra. Handik egun gutxira, urriaren 7an, egin zuten osoko bilkura eta Zuzendaritzako karguen banaketan diruzain atera zen Agerre.

Daitekeen motzena izan zen erantzukizunaren iraupena, ez baitzen gehiago batzarretan agertu lanbide arazoengatik. Nekazaritzako tresneria egin eta, batez ere, saltzen zuen «Mugica, Arellano y Cía» Iruñeko enpresa garrantzitsuan lan egiten zuen une hartan, eta Sevillara bidali zuten nagusiek, han irekitako



Hiri zaharraren lehen garapen proiektua. Bertan jasoko zen Olite karrika eta Agerreren bizi guztiko etxea

ordezkaritzaren arduradun. Euskaltzainaren asmoak eta abertzalearen ametsak apurtu zituen ustekabean egoera berriak. Etxetik urrun jaso zuen Agerrek, euskaltzainburuak bidalita, 1920ko apirilaren 25eko batzarrean erabakitakoa. Honela dio aktak: «4. Euskaltzainburuak, Agerre jaunari idatzi bezayo batzarretara eldu al izango ote dan ala bere euskaltzain kisa utzi nayago ote duan jakiteko».

Berehala erantzun zion nafarrak Azkueri eta maiatzeko batzarrean eman zen jasotakoaren berri. Hau dio batzar-agiriak: «Agerre euskaltzainaren idazki bat irakurri izan zan euskaltzaingoari uko egiten, arazoz yosia ta zeregiñez betea ei-dagolata, ezin lukelako gura bezela euskaltzaingo ori jarraitu ta bete. Uko ori aintzat artzea erabagi zan».

Altube izan zen hurrengo diruzaina eta, Agerrek utzitako aulkia Damaso Intzako aita kaputxinoak bete zuen aurrerantzean. Ez zen haatik hutsarte bakarra izan berea, Adema ere utzi baitzuen euskaltzain aulkia, heriotzak kendu zielarik Broussain eta Agirrerri berena. Lau izen berri, beraz, epe laburrean. Euskal Akademiaren sorrerako espirituan kokatzen da gertakizuna. Izendapena norberaren oho-rezko apaingarria ez baino, euskararen alde lan egiteko akuilua zela garbi zeukaten. Barne Erregelaren 10. artikulua zirraborroak hau zioen: «Urtean izentauta dagozan ogei aldiroko amar batzarretara eztatozen euskaltzainaren lekua utsik dagoala iragarteko eskubidea Euskaltzaindiari emon».



Jose Agerre gaztearen argazki ezezaguna



S. Agerre eta Sofronio Borda koinatua

Helburu hau zehatz-mehatz bete izan balitz euskaltzain asko eta askok utzi beharko zuen garai guztietan Akademia, baina Agerre eta Ademaren kasua ez da errepikatu eta Iruñera itzultzean ez zitzaion nafarrari aurreko eskubidea aitortu. Urgazle jarraitu zuen geroztik eta Euskaltzaindiarekiko borondate ona azaldu zuen beti, euskararen aldeko ekintzetan gogotsu parte hartuz. Euskaltzain aipamena baliatu ere izan zuen, behin edo beste, bere izkribuetan ikus daitekeenez.

Sevillan armak saltzeko denda bat bereganatu zuen Iruñeko beste partaide batekin elkartu-

ta eta, negozioa negozio, dendakidearen bitartez ezagutu zuen bere emaztea izango zen Modesta Zelaia, Agoizko alaba. Ezkondu eta han jarraitu zuten bizitzen, ordukoak direlarik Jose Migel eta Miren seme-alaba biak, Agoitzen jaio baziren ere, hemengoak izatea baitzen aitaren borondate fermua.

Errepublikaren etortzean erabat okertu zitzaion bizibidea, bortizkeria eta lapurretak jasan baitzituzten dendan. Hori dela eta, partaidea erkideari saldu eta Iruñera itzuli ziren Agerretarrak. Hala amaitu zen 1931n euskaltzalearen hamaika urteko erbestaldia.



Zangoza eta Agoitzera zihoan 'Irati' eta hiri-garraioko tranbia

Idazlea

Idazle oparoa izan zen Jose Agerre inoiz liburu-rik argitaratu ez bazuen ere. Kazetaritza eta olerkigintza ziren berak gehienik landutako esparruak. Euskal gaien inguruan bazen ere, gehien bat gaztelania zerabilen prosan, eta olerkigintzan ia beti euskara. Erlijioarekin batera herri ohiturak ere maiz agertzen dira bere izkribuetan, maitasuna ahantzi gabe. Gai arruntak, beraz, egoera politiko zital hark ipinitako hesi estuetan. Ez zen erraza izan bere lana.

Kazetaritzako bere ekarpena bi arlotan banatu behar da: idazlanen kopurua alde batetik,



Sanferminetan kiosko aurrean

eta argitalpenen zuzendaritza bestetik. Oro har, Euskal Herriko aldizkari gehienetan agertzen da Agerre edo Gurbindo bere izen-goitia. Nabarmena eta luzea izan zen, adibidez, 1915etik aurrera «Euskerazko saila» izenpean, *Diario de Navarra*-n bizpahiru urtez igandero atara zituen artikuluen saioa. Ehunka atal jakingarri Nafarroako euskaltzaleen bildumarako.

Sevillan zegoen bitartean berak bidaltzen zituen *La Voz de Navarra* egunkarira Nazioarteko Erakusketari buruzko berriak (1929). Gerra ostean, 1948tik aurrera, jende ikasien mailan sortutako *Pregón* Iruñeko aldizkarian hogeitau idazlan argitaratu zituen, erdaraz, euskal pertsonaia, tradizio jakingarri eta liburu garrantzitsuei buruz iritzia emanez. Aldizkari honetan agertutako euskarazko lekuko ia guztiak bereak ziren, hala nola, «Pierre Lafitte: Euskalerriko gizapikua», edota olerkiez mintzatzean aipatuko diren hainbat



Seme-alaba biekin festa giroan

neurtitz. *Vida Vasca* eta beste aldizkari batzuetan ere baditu lanak.

Han-hemenka plazaratutako lanen kopurua aintzat hartzekoa izan arren eta jakingarria edukia, merezimendu gehiago du zenbait aldizkariaren zuzendaritzan euskal kulturaren alde gerra aurrean egindako ahaleginak. Aipagarria da benetan, gertatua gertatu, hainbeste aldiz espetxetik bizirik atera izana.

Laburra izan zen lehen zuzendaritzako saioa, urte bat iraun baitzuen, 1918an, jeltzaleek zortzi urte lehenago sortutako *Napartarra* aldizkariaren ardurak. Agerre izan zen azkena. Geroago, Sevillatik itzuli bezain laster atera zen, 1931n, *Amayur* aldizkaria eta Agerre izan zen lehenbiziko zuzendaria, urte baten buruan utziko bazuen ere erantzukizun gehiagoko *La Voz de Navarra* egunkaria zuzentzeko gerrarekin desagertu zen arte. Ekintza honek sortu zizkion istilurik larrienak. Euskalduna izatea bera zen akats susma-

garria une hartan; euskal idazlearen ofizioak bizia hari mehe baten baitan jartzen zuen Nafarroan, eta euskal aldizkariaren zuzendaria izandako zamak ihes gabeko bide itxian ematen zion beste mundurako ziurtagiria edozeini.

Merezimendu horiek guztiak eta gehiago zituen, noski, Iruñean *Don José* esaten zioten gizon hark –denek ezagutzen baitzuten– eta berandutu gabe, uztailearen 20an, joan ziren bere bila. Horrela hasi zen gurutzebide gordinaren historia. Carlos Clavería, haren adiskide minaren testigantzan, aurki daiteke hurbilketarik fidagarriena.

Agerrek zeraman *La Voz de Navarra* falangistak egoitza miaztera joan ziren egun hartan, eta maltzurkeriaren izenean, pistola sartu zuen haietako batek zuzendaritza bulegoko mahaiaren kutxatilan. Hori aurkitzean besteek, modu txarrean hartuta, arrastaka atera zuten trapu zaharra bezala kanpora. Halako



Eusko Ikaskuntzaren hasierako ikurra



Euskaltzaindiaren sorrerako ikurra



Jose Agerre

batean, kulataz ahoan jo eta hortzak hautsi zizkieten, odola zeriola Gobernu zibileko zulo itsuan –«ciega» famatuan– sartzeko.

Gizonarekin galdu zen etxea eta desagertu aldizkaria. Jeltzaleen makinetan aterako zen handik aurrera arerioen *Arriba España* urdina.

Zenbait hilabete ilunpean egon ondoren itzuli zen etxera, baina ez zen hori Agerrek jasan behar izan zuen atxilotze bakarra. Gerra bukatu aurrean, mugaz bestaldera jendea pasatzeko sare bateko partaide omen zela-eta, preso hartu zuten berriro. Auzia auzi, libratu zen orduan ere, baina jarraipen estua egiten zitzaion gerra ostean eta beste bietan



Jose Agerre eta Modesta Zelaia bere emaztea

behintzat, 1941 eta 1946an, ezagutu zuen itzalpeko bakardadea. Batean, egunez eta publikoan atzerriko kazetari batekin izandako elkarriketa zela medio, eta ezkutuko salataria omen zelako susmo gaiztoagatik epaitzeko, bestean.

Ez da harritzekoa, benetan, liburuak argitaratzeko astirik edo umorerik eza hain giro irris-takorrean bizita. Izan ere, euskaltzale askoren gogo-bihotzak hoztu zituen beldurrak sarraskitik bizirik atera zirenen artean. Agerre ez zen haatik kokildu eta herriaren alde lanean jarraitu zuen hil arte. Bere lana da, beraz, askatasun iheskorren hutsarteetan kementsu idatzitako liburu mardula.

Baina, zorigaitzoko «ciega» espetxeko gela itsutik bizirik ateratzeak badu bere misterio ezkutua. «Ongi ateraia ongi konda», zaharrek zioten bezala. Nor zukeen Agerrek tirokarien



1928. Karlos III. hiribidean irekitako lehen euskal eskolako haurrak



Ilobaren ezkontzan aitaordeko

lurpeko zulo aurrean babesle? Benita Santesteban, amaren izenak, argitzen du nolabait Joserren orduko gau beltza. Iruñeko presoan bizia nahiz heriotza bere esku odolduetan zuen taldean bazen ongi baino hobeki ezagutzen genuen norbait. Aralarko txarak bezain

tantai argal eta luzea, astero etortzen zen Seminariora. Berak egiten zizkigun apaizgai handi nahiz txikion sotana guztiak –ehunka apaiz-jantzi ilun– eta solasaldi luzeak zituen gurekin. Kanpoko beste inork baino gehiago. Benito Santesteban erreketen Iruñeko agintari ospetsua zen eta espexeko amets gaiztotan mamurik beldurgarriena. Gaueko bere lanak ez zuen –omen– apaizgaien jantziekin, etxean saldutako santuen irudiekin nahiz elizkizunetako bere intzentsu eta ikatzarekin zerikusirik. Eguna egunezkoentzat eta gaua gauezkoentzat. Gerra hasierako egunik txarrenak igarota, jaun honek atera zuen Agerre gela itsutik eta bere etxera eraman. Odolaren mintzoa. Noizbait entzun izan dut ia bi urte igaro zituela, bataz beste, Agerrek kartzelan.

Olerkaria

Berandu arte ez da nabarmentzen olerkari sena Agerreren bizian, baina kementsu eta emankorra da orduan bere eragina Nafarroako euskal letretan. Gerra aurretik ez zuen neurtitez ezer argitaratu eta, oraingoz, ez da bere zirriborroetan ezer agertu. Geroak esango du zerbait baden. Gerra ostean, alderantziz, –1949tik aurrera alegia–, oparoa da bere olerkaritzako ekarpena. «Gurbindo» izengoitia zabaltzen da nafarraren lanak aldizkarietan agertzeko orduan eta euskal argitalpen gehienetan bada bere lekukotasunik.

Erromantikoa izateaz bestalde, olerkaria ere ba ote zen Agerre? Poeta jaio egiten da noski, berezkoa da dohain hori, ekinaren ekinez jantzen bada ere gero bakoitzaren trebezia. Beranduko bokazioan zaletasuna ez ezik, trebetasuna ere azaltzen du ofizioan. Irakurleak ulertzen baino erraztasun gehiago erakusten du berak olerkiak moldatzen. Horren arabera, bazukeen poesia lanetarako jatorrizko isurkia. Poesiaren susmo printzarik ez uzterainoko urte agorrak izan ote ziren gaztaroko urte amesgarrienak poetaren bizian?

Galderari zeharo erantzuterik ez badago ere, badirudi ekintza zela –ogibidearekin batera–



Eskolapioen ikastetxe berria. Bertan kokatu zen euskal eskola 1933tik 1936 arte



Euskal eskolako haurrak

gerra aurreko urteetan bere helburu nagusia, eta baliteke musen barneko xuxurla hainbat arazotan murgilduta itotzea. Sevilla arrotzean negozioen sokamutur gordinari loturik bizi zen, gero euskal aldizkarien ekonomia murriztarekin iraupenaren erronkari egunero aurre egin behar zitzaion, eta ez zen hori egoerarik aproposena –*primum vivere*– sentiberatasun erromantikoari hegoak eman eta poesiaren errentatik –edo ametsetatik– bizitzen saiatzeko. Basamortu gorrian hitzetan gorpuztu gabe, isilunean ihartutako poema antzua gertatu zatekeen gerra aurreko olerkariaren baratzea.

Gerra ostean, alderantziz, etxean bertan ireki zuten hizkuntzak erakusteko «Poliglos» aka-

demia eta familian mugitzen zen beti, arratsaldeko solasaldia egunero *Cafe Nizan* lagun giro lasaian egiten zuela. Diotenez, zazpi hizkuntzaren ikastaroak ematen zituen, hala nola, euskara, frantsesa, ingelesa, italiara eta alemana, Seminarioan ikasitako latin eta grekoarekin batera. Ogibidez inoren esanera egon gabe lan egiteak ematen duen askatasunarekin bere denboraren jaun eta jabe izatea lortu zuen, eta barnean zeraman kutsu erromantikoa susperturik hasi zen olerkiak eten gabe idazten.

Luzea da euskaraz idatzi ohi zuen aldizkarien zerrenda. Harreman estuak izan zituen Larreako karmeldarrekin eta berauen aldizkarietan argitaratu zituen sarri olerkiak, hots,

Karmengo Amaren Egutegia, Karmel eta bereziki Olerti-n.

Desberdina da Nafarroako irakurlegoari buruz jarraitutako bidea. *Pregón* aldizkarian eta *El Pensamento Navarro* egunkarian, erdaraz idatzitako artikuluez landa, euskara sartzzen saiatu zen eta erdal esanahi modukoarekin argitaratzen zituen olerkiak hizkuntza bietan. Hori dela eta, *Pregón*-en 17 zenbakitan agertu ziren Agerreren euskal poesiak, eta *El Pensamiento Navarroren* beste hamabitan. Horrela, erdarazko argitalpenak izan arren, euskarari tokitxoa egiten zion bakarkako ahalegin urria besterik ez bazen ere.


Euskal Herriko beste aldizkari batzuetan ere ikus daitezke Gurbindo nafarraren olerkiak, hala nola *Egan*, *Euzko Gogoia*, *Euzko Deya*, *Euzkadi*, *Gure Herria* eta *Txistulari*-n. Joxemiel Bidador kazetariak 44 poesia bildu ditu, egile-



Maisua ikasleekin klasean



Lagunarteko bileran mintzatzen



Eskuizkribu baten zirriborroa



Olaberrian, 1955-05-30, Lazkaoko beneditarretan ostaturik zegoen Orixerengana joanak seguruenik. Jose Agerre atzean Koldo Mitxelena ondoan

aren zenbait itzulpenekin, *Jose Agerre Santesteban. Gerra-ondoko olerki-lanak (1949-1962)* izeneko liburuan. Agerre zenari buruz atera den lehenbizikoa da eta, oraingoz, bakarra. Balegoke ildo horretatik han-hemenka zer bildurik. Azpimarratzekoa da Iruñeko Udalak argitaratu diola hiriko seme euskaltza-



Nikolas Ormaetxea *Orix*e, Patxi Unzurrunzaga eta Jose Agerre



1954. Jose Agerre ezkerrean jantzi argiarekin

leari liburua, bizi zelarik jaso ez zuen esker ona eta ohorea nolabait itzuliz.

Hizkuntzari dagokionez, Agerreren euskara euskalki batean mugatzerik ez dago. Aipatu den bezala, hein batean berak apailatu zuen tankera bereziko mintzaira da. Halako batean aditza gipuzkeraz darabil, eta gero nafar esatera jatorren bidetik doa. Pirinioetako herrien kutsua darie «Jator eredu bi» eta antzeko beste olerki batzuei. Asko irakurri eta berezitasunez jabeturik aberasten zuela bere mintzaira adierazten du horrek.

Autoreei buruz, berak hain maite zuen Orixeren *Euskaldunak* poemakiari zerbait zor dio «Egutegian oar-ketan» bezalako zenbait bertsoetan; baina «Orixeri goraintzi, egor ta agur» omenezko olerkian, adibidez, bertsoberri paperen nolabaiteko bidea hartu zuen.

Herri literatura zuen, zalantzarik gabe, eredu gogokoena eta folkloreak hornitzen zituen bere esanahi asko. «Donianetan su ta ikurmena» idaztean, adibidez, «Eguzkiak zun dantza / Mendigo batzutan», dio artzaien esanei jarraituz. Festaren antzinako oinarria du gogotan «Pagano baten orde / Yon Doni zen jarri», diotenean, eta jentilak desagertu zireneko ipuina gogoratzen du bertso honetan: «Biok dute bai ere / Bertsu bat eraikin: / Jentila ta Kistarra / Biok dute berdin».

Ez da erraza hainbeste euskalki eta jakintza-gairen bilduman laburpena gitea.

Fededuna

Jainkoa eta Elizarekiko jarrera aipatu gabe uztea Agerreren bizian gizonaren benetako izaera apurtuta agertzea izango litzateke. Jainkoa eta Euskal Herria izan ziren, hain zuzen, bere bi amodio nagusiak eta ekimen guztien ardatza. Hasieran esan da Seminarioko heziketa kristauak markatu zuela Agerreren izateko modua eta hil arte zintzo jarraitu zion gaztetan ikasitakoari. Jainkozalea eta Elizari atxikia izan zen beti.

Azalez ikusita tristeza izan behar zuela dirudi arropa ilunez jantzita patxadatsu, zintzo eta ohitura onen ildotik egindako gizonaren bizi-modu orekatuak. Izan ere, orduko elizgizonen

arau hertsia eta apaizen heziketa bera hartu zituen apaizgaitegian. Iruñeko giroa, hiri txikia baitzen, auzoz auzo, kalez kale eta leihoz leihosasi-berriak, konfesategi publiko baten antzera, ahoz aho zabaltzen zireneko hesi herrikoian kokatzen zen, eta zeresanak eraginik bazuen hiritarren bizian. Politikari dagokionez, alderdiak bere helburu eta erantzukizunak ipintzen zizkien jeltkideei. Erabaki askearentzat zirriturik ba ote zuen pertsona leialagan kontzientziak?


Hori aski ez dela, bortizki jasan zuen espetxearen zigorra eta ez zuen hil arte gainetik kendu hurbiletik jarraitzen zioten arerioen itzala. Azaletik ikusita ez dirudi giro atsegirik



Bertsolarien txapelketa 1960an berreskuratu zen Nafarroan. Ariako argazkia. Jose Agerre eskuinean bigarren lerroko lehenbizikoa

eta biziko pozarentzat erraztasun gehiegirik eskaini zionik munduak.

Erronka larria izan arren, ez dezala inork pentsa fededun ilun, euskaldun hits eta gizon triste bat izan zenik. Itxura guztien kontra,



Olerki zirriborroa

printzipioen ilusioa ez zuen inoiz galdu eta zailtasunen aitzinean areagotu egiten zitzaion erantzun-kemena. Ilusioa da biziaren argitasuna eta kanpoko erasoek lehortu ezin duten pozaren barneko iturria.

Itxaropena zen hondo gabeko beste putzua harengan. Horregatik borroka egin zuen etsi gabe, kale gorrian bizia utzi arte. Gizon handien dohain berezia da etsai gogorren aurrean garaipenaren moralala ez galtzea. Zaratarik gabe, isilean, egin zuen Agerrek hori. Etsipenak ezer egitekorik ez zeukan harekin.

Hori da, azkenean, fedearen indarra. Ezinak fedean du sosegu eta fedeak ezina garaitzen du.



Jose Agerre erdian eserita. Eskerretik laugarrena

Erraza da norbaiten bizian alaitasuna, argia eta poza bazela esatea; korapilatsuago izan ohi da pertsonaren barne-barneko kirio ezkutuenen datzan zerbait frogatzea, hark laguntzen ez badu. Agerre poeta zen aldetik gogo hausnartzaile zen eta, harrigarria badirudi ere, gai arinagotan hizkuntza zaila zerabilen gizonak, berez sakonak diren pentsabide eta konzeptu trinkoak argi azaltzen ditu batzuetan.

Adibide esanguratsua gerta daiteke heriotzarena norbaitek duen biziko zentzua argia ala iluna den aztertzeko. Zerbait beltzik baldin badu gizonak, hiltzearen susmoa da, baina Agerrek aipu du gaia behin eta berriz, baikor beti, iluntasuna arindu eta argitsu agertuz.

Udazkena da olerkari erromantikoentzat pasarte kutunetako bat eta sasoi horretako hilabete nabarmena aintzat harturik idatzi zuen, «Azaroan: Urrelilia» (Crisantemo) izeneko olerkia eta honela egiten du bertan hildakoen aipamena:

Zenduak, oin beltz, zergatik ote?
Kolore beltza, iduri leize;
Beltzuna ez dea
Argi gabea,
Txuriari gosez jaten diena?
Uxa zagun beti argi ez dena.

Ez da garaiari dagokion bertso apain behin-behineko itxurakoa. Gaia ukitzen duen baikoitzean hitz politak eta irudi atseginak isurtzen ditu berez ateratako sentimenduen erraztasunarekin. «Euskaldunen ilerriak»

izenburua daraman olerkiaren hasieran dio, «Ilterri bada poesi darionik / Eskual Erriyan beitu», Gaetan Bernoville-ren hitzak aipatuz. Eta amaieran honela deskribatzen du, ikuspegi bizi eta alaiez, euskal hilerria:

Ilarri guziek, batera bilduak,
Iraz apaindu ta lorez,
Iduri dute txito xaldo bat
Ama arroaren egalpez.

Euskaldun zaharren bidetik doa ahaidea hiltzean urreliliaren argiz eta kolorez jantzi behar dela dioenean, «jaiotzean nigar egin behar da eta hiltzean festa», esaten baitzuten orain ez bezala. Kristau fedearen mezu soiletik ala herri-jakintzak maisuki atxiki duen pentsamoldetik jaso ote zuen Agerre hiritarrak heriotzaren ikuspegi alai tradiziokoa? Bietatik behar bada, konturatuta edo kontu-



Miren Agerre, alaba, etxeko liburutegian

ratu gabe. Bere hitzak dira –beltza arbuizatzu beti– lehen aipatutako «Urrelilia» poesian dioen hau:

Ilitzen delarik gure maite bat
Diruri bidean iya inpernurat;
Zer dakarra, ba,
Beltzera lerra?
Sinest baginu, legea danez,
Jauntziko ginake argi-margoez.

Zor zaio Agerre handiari –itxuraren kontrako dohaina– espiritu alai eta baikorraren aitorpena. Nola egin ziezaikeen aurre, bestela, hainbeste eraso eta mehatxuri Nafarroan abertzale askoren akuilari izan zen gizonak?

Santuen festei buruz idazten zuenean euskal santutegiari izar handiren bat edo beste eransten ahalegindu zen, «Jaundoni Laurentziren jai-egunean» izeneko poesiak dioen bezala:

«Ozka erri bai zaar, / Ixtorioan argi ta nabar, / Laurentzi baño argitu ez balu / Izarretan zen izar. Ozkan zela sortua / Aspaldi da susmua; / Urtetan dute bat utzi gabe / Orainokoan jai-tua».

Abertzaletasuna eskukaldi guztien beharrean ikusten zuen nafarrak eta Pirinioetako sines-teei jarraituz ustezko euskal historia hau haztu zuen bertsoetan:

Zaitugu, Laurentzi, euskalduna ote?
Errikide zarenaz zantzurik baidute;
Egi ezbadere dugun barrundea,
Oin gongoren zarenaz, zaitela gurea.

Izena baiduzu erroz euskalduna,
Laurentzik beitu usaña, jator jatorrena;
Laurentius ezen dator Laurentzitik ala:
Irizkide ez zaidanak [...] berea dezala.


Agerrearen herriminak badu, halere, beste ezaugarriarik eta bizi guztian egindako lan eskergarria, txalagarriena denetan.



Berak sortutako Axular aldizkariaren azala



Gerra ondoko olerki lanak (1949-1962). 44 olerkiren bilduma



Euskara Iruñeko kazetaritzan (1910-1920). Agerrearen testu antologia (I)

Abertzalea

Ezer baino lehen eta beste merezimendu handien gainerik langile borrokatua izan zen Agerre euskal munduan. Zinez maite zuen bere herria, miresten zuen euskal kultura eta bizi zuen euskara. Ikuspegi hori gabe ezin da ulertu gizon baten bizi osoko jarrera. Inork hainbat nozitu zuen gerra itsusiaren zigorra eta, beste asko eta askok beldurrez etsita zokoratu bazuen ere bere burua, atergabe jarraitu zuen hark lanean, hurbiletik sumatu arren arerioen urratsak.

Nafarroako euskal mugimenduaren ardatz ezkutua, euskararen aldeko ekimen ugariaren iturburu eta eragile trebea izan zen itzalean.

Politika arloan, gazterik eman zuen izena EAJ alderdian eta buruen konfidantza osoko jelkidea izan zen beti. Sekula Sevillara joan aurretik Eusko Etxeko idazkaria zen, non eman baitzituen, ia 1913an, euskara ikastaroak. Asko esan nahi du Nafarroako jeltzaleen hiru aldizkarien zuzendaritza –*Napartarra*, *Amayur*, eta *La Voz de Navarra*– bere esku egonak. Jabetzen zen mezu idatziaren garrantziaz eta, gerra ondoren, Axular izeneko beste aldizkari baten atzean bera zebilen.

Alderdian nafarren arteko desadostasunak ikusita NBBeko arduradun nagusi egin zuten, epe laburrerako haatik, hurrengo urtean gerra eztrandak astindu baitzituen bazterrak.

Maitatua zen Iruñean, oro har. Zintzoa eta kultura handiko humanista bezala zeukaten denek eta horrek mesede asko ekarri zion

beregan nabarmentzen zen euskaltzaletasunari. Lagun giroan biltzen zen egunero bazkal ondoan, esan bezala, eta gazte jendea inguratzen zitzaion, bestalde, igande eta festa bezpera iluntzetan toki berean, euren arazoez hitz egiteko. Baina taldeka batzeak bazuen bere arriskua une hartan eta elkarte bat sortzea erabaki zuen Agerrek. Arauak prestatu eta onarpena lortu bitartean kafetegia utzi eta legezko bedeinkapen guztiekin baina irakurle-rik gabe egon ohi zen liburutegi ofizial batean biltzeko baimena lortu zuen. «Euskalerrriaren Adiskideak», erdaraz *Amigos del País*, izenekin onartua izan zen elkarte berria eta, 1960an, Iruñea zaharreko San Anton karrikan ireki zuten egoitza. Laster bihurtu zen etxe hura euskal giroko ekimenen iturburu eta babesleku. Handik hasi zen ateratzen Santa Ageda bezperako kantari taldea eta euskarazko meza eurek antolatu zuten hurbileko komentu batean, besteak beste.

Bizpahiru elkartekide ausartago izan ziren eta *Plaza del Castillo* irrati saioa ematen zuten egunero, erdaraz, Herri Irratian. Kultura eta literatura gaiak zabaltzen zituzten eta Agerrek idazten zituen euskararen arloko albiste eta zertzelada jakingarriak. Eraginik izan zuen euskaltzaleen saio honek agintarien iturritako mezu ofizialak bakarrik entzuten ziren garaian. Zoritxarrez, ez zituen luzaz dastatu Agerrek azken orduko ekintza honen emaitzak, bi urte baino lehen hil baitzen ustekabean.

Bere bidean jarraitu zuen elkarteak eta San Antongo etxe barnean sortu zen, 1965ean,

Agerre zenari pozik handiena eman ziezaioken gerra ondorengo lehenbiziko ikastola, bertan dihardute eta Nafarroako Ikastolen Elkartearen bulegoak.

Beste kultur talde batzuetan ere nabari zen Agerreren presentzia. Alderdiari zion atxikimendu zehatzak ez zizkion bere herriaren alde lan egiteko beste bideak ixten. 1932an Eusko Ikaskuntzaren Nafarroako batzorde idazkaria zen. Ateneoak eraturako Euskal Hizkuntza eta Literaturari buruzko ikastaroaren arduraduna ere bera izan zen.

Bertsolari txapelketen antolatzaileekin ibili zen hil arte, epaimahaian, nahiz festen kronikak egunkarietara bidaltzen. Aipamen berezia merezi du Pedro Díez de Ulzurrun eta Migel

Jabier Urmenetaren gidaritzapean –beste batzuekin– haur euskaldunak saritzen «Euskararen Aldeko Sailak» herriz herri egin zuen lanak. Adinaren arazoengatik ez zen Agerre herrietara asko ateratzen, baina hala beharrez, bat-batean hil aurreko egunetan, 1962ko urriaren 10ean Etxalarren izan zen sariak banatzen. Handik laster, egunero bezala bazkal ondoan lagun arteko jarduntxoak amaitu eta kalean erori zen bihotzekoak emanda. Etxera eramateko modurik gabe, hurbil bizi zen adiskide batenera eraman zuten, bertan pausatu zelarik 1962ko urriaren 19an.

Samin handia sortu zuen heriotzak euskaltzaileen artean eta nekez betetzeko zuloa utzi bere inguruan. Familiaren erabakiz, Agoitzen egin ziren elizkizunak eta, jendetza handiarekin bestalde, bertan eman zitzaion lur santua.

Arturo Campionen biografia aurreratu samar zeraman eskuarteko lanetan eta berdin dirau orduko eskuizkribu orain zaharkituagoan.

Nazionalen Iruñea santuan, bidenabar, –lagunaren oroitzapen soila salbu– heriotzaren aipurik ez egunkarietan; hiriburutik Agoitzera doan errepidea –hori bai– guardia zibil armatuez horniturik, gerran bezala, haren hileta elizkizun baketsuak zirela eta.

Udazkeneko orri eroriak azken erromantikoaren heriotza,

Euskal eraikuntzan ereindako amets preziatuaren hazia.



Hileta oroigarria. Agoitzen ehortzia

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Agerre familia*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2002ko abendua

Ale-kopurua: 2.500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde

Fotokonposizioa: E.P.S., S.L.
Herminio Madinabeitia, 18 - Pab. 3 - 01006 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.
Bekolarra, 4 - 01010 Vitoria-Gasteiz

ISBN: 84-457-1871-1 (Lan osoarena)
84-457-1874-6

L.G.: VI-561/02

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística